

Zerbitzu berria Bilbon, Gasteizen, Donostian eta Iruñean

**EROSKI ONLINEK ZERBITZU LASTERRA
ATERA DU, EROSKETA EGUNEAN BERTAN
ETXERAINO ERAMATEN DUENA**

- **Multikanaltasunaren aldeko apustu honek erosketak eramateko eta egiteko aukerak zabaltzen ditu, lehendik ere hor baitira *Click & Drive*, *Click & Collect* nahiz etxera eramatearena**
- **EROSKI k Interneten duen denda orain dela gutxi aukeratu dute on line supermerkatu onena Urteko Merkataritza Sariketan**
- **EROSKI ko on line erosketen %85ek baino gehiagok freskoren bat izaten dute, eta horrek sektoreko batez bestekotik gora ipintzen du kooperatiba, Nielsen aholkularitza enpresaren arabera**

Elorrio, 2017ko azaroaren 7a.- **EROSKI**k beste pauso bat eman du on line zerbitzuan, eta etxera eramateko modalitate berria estreinatu du aldi berean Bilbon, Gasteizen, Donostian eta Iruñean. On line eskariak etxera entregatzeko egunak astelehenetik ostiralera izango dira, eta ez dute kostu gehigarririk izango.

Zerbitzu berri hau erabiltzeko, bezeroak 15:00ak aurretik egin behar du eskaria. "*Lehen egunetan, bezeroen %20k baino gehiagok aukeratu dute egunean bertan entregatzea*", esan du EROSKIko Online Negozioaren zuzendariak, Mari Mar Escrigek. "*Bezeroak erosketa egin dezake, elikagaien eta freskoen 15.000 erreferentzietatik aukeratu eta ordu gutxiren buruan etxean jaso; hala berehalako eta hurbileko erosketa esperientzia lortzen da, eta erosketak biharamunean jasotzearen oztopoa gainditzen da*", esan du.

Kooperatibak jarraitzen du pausoak ematen multikanaltasunaren alde, eta aukerak ugaritu ditu hala erosketa eramateko orduan nola erosketa egiteko orduan. Lehendik ere, berehala eramateko modalitate berri honetaz gain, hor dira *Click & Drive* eta *Click & Collect* egunean bertan eta doan biltzeko guneak; horiei esker, bezeroek Eroski Onlinen egindako eskaerak har ditzakete ordu batzuen burua, ilaran jarri gabe eta zein egon beharrik izan gabe. "*Kontua da eramateko ordu gehiago eskaintzea erosketak hartzera joan nahiago duten bezeroei, ondoena datorkienean joan daitezen etxean zain egon gabe. Bezeroek zerbitzu honen*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

doakotasuna eta erosotasuna estimatzen dituzte; agerian dago hori fakturazioa lehen seihilekoan nola igo den ikusita (%60).

Aurtengo on line supermerkatu onena aukeratu dute

Orain dela lau hilabete, on line supermerkatu azkarrago eta eraginkorrago bat ateratu zuen, bezeroen erosketa esperientzia hobetzeko. Aurreko hilean, EROSKI bere aplikazio eguneratua aurkeztu du, EROSKI Cluben Bezero Bazkideek modu erosoa gozatzeko seguru bezalako aplikazio horrek ematen dituen aukerekin.

EROSKIren Interneteko denda aukeratu zuten joan den hilean urteko on line supermerkatu onena 2017-2018. urteko Merkataritza Sariaren ospakizunetan. Kontsumitzaileek ematen dute saria, on line bozketaren bidez supermerkatuaren gogobetetze eta baloratze maila orokorra aukeratuta. Espainian dagoen kontsumitzaile lehiaketarik handiena da, eta merkatu azterketarik handienetako bat. Bozketan, zenbait ezaugarri baloratzen dituzte: kalitatea eta prezioa, sortaren tamaina, bezeroarenganako zerbitzua, eskariak ematearena, promozioak eta eskaintzak, eta erabiltzaileen esperientzia.

EROSKI taldea aldatzen doa arlo digitalerantz, eta saritu egin diote kontsumitzailearen premietara egokitzeko eta proposamen berritzaileak egiteko hartu duen bide hori. EROSKIren on line supermerkatuak 15.000 elikagairen eta freskoren erreferentziak ditu, eta eskaintza komertzialik handiena egiten du, mundu fisikoko prezio eta promozio berberekin, gainera. Horrela, kanal guztietan bermatua gelditzen da erosketa uniformearen esperientzia. *"Supermerkatu erraza eta intuitiboa da, eta produktu aukerarik zabalena dago eskura; gainera, orain, etxean bertan eta egunean bertan jaso daiteke, biharamunera arte itxoiten ari gabe"*, esan du Mari Mar Escrigek.

On line freskoak

Nabarmenezkoa da kontsumitzaileak nola fidelizatu diren produktu freskoak webgunetik erosteko orduan; izan ere, EROSKI on line egiten diren erosketetan, produktu freskoren bat izaten dute eskarien %85ek baino gehiagok. Nielsen datuen arabera, Espainian hamar kontsumitzailetik batek janaria on line erosten duenean freskoak ere erosten ditu, eta kooperatiba sektoreko batezbesteko horretatik gorago dago. *"EROSKIk produktuaren kalitatea bermatzen du, eta bezeroari aukera ematen dio, prestaketa oharren bidez, produktu freskoa nola erosi nahi duen adierazteko, dela haragia edo arraina mozteko era aukeratuta, edo dela frutaren umotze gradua aukeratuta; eta, horretarako, funtsezkoa da*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



dendan profesionalik onenak izatea, freskoak bezeroak berak aukeratuko lituzkeen bezala aukeratzeko", esan du Mari Mar Escrigek.

Bestalde, EROSKI Online supermerkatua bakarra da Balearretan, Nafarroan eta EAEn lurralde oso-osoan eskaintzen duena erosketa etxera eramatea, eta Galizian, berriz, ia-ia lurralde osoan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)